

2020-01-28ko OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2020ko urtarrilaren 28an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Gorka Murua Macuso izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Noelia Lataburu Ortiz, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Olaia Nieto Legarra eta Leticia Aristi Oria.

-Azaldu ez diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Inor ez.

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Ana Jesus Leunda Gurruchaga, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Inor ez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak hasitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

AURREKO AKTAK ONARTZEA (2019-11-26).

Udalbatzak, aho batez, 2019ko azaroaren 26ko ohiko bilkuraren aktak onartu ditu.

Eztabaida: Ana Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) eskatzen du galde-erreguen galdera baten eztabaida zuzentzea eta horrela onartzen da.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2019/255 DEKRETUTIK 2020/16 DEKRETURA BITARTEAN.

Alkateak 2019/255 dekretutik 2020/16 dekretura bitartekoen berri eman dio Udalbatzari.

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA
IRURAKO UDALEKO LANGILEEN ORDAINSARIEN IGOERA
ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.
Alkatearen proposamena aurkeztu da.

2020ko ordainsarien igoerari dagokionez, 2020-01-22an urtarrilaren 22ko 2/2020 ERREGE Lege - Dekretua argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean, honen bitartez onartzen diren presako neurriak sektore publikoaren gunean ordainsariaren arloan. Horren bitartez onetsiko dira ordainsarien arloko premia neurriak sektore publikoaren esparruan.

Hain zuzen, Errege Lege - Dekretuaren horren 3. Bi artikulua hau xedatu du:

“3. Bi artikulua.

2020. urtean, sektore publikoaren zerbitzua lan egiten duten langileen ordainsarien igoera globala ez da inola ere izango 2019ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak baino %2,00 handiagoa, konparatutako bi denboraldien homogeneotasunari dagokionez, hala langileei begira, nola antzinasunari begira. Hala ere gizarte - ekintzarako gastuak , zeinak , orokorrean , 2020an ezingo baitira izan 2019ko gastuak baino handiagoak .Horren inguruan , gizarte - ekintza arloko gastuak irabaziak , osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da , egindako lanagatik jasotako lansarietako desberdinak , orobat; lansariaren helburua aipatutako sektore publikoaren zerbitzurako langileriaren inguruabar pertsonalen ondorioz sortutako premia jakin batzuk asetzea da.”

Gainera, soldata masaren ehuneko 0,30 igoera gehigarri bat baimendu ahal izango da, beste neurri batzuen artean, honakoak ahal izateko: produktibitatea edo

En relación con los incrementos retributivos de 2020, el 22/01/2020 se publicó en el Boletín Oficial del Estado, el Real Decreto Ley 2/2020, de 22 de enero, por el que se aprueban medidas urgentes en materia de retribuciones en el ámbito del sector público, norma que posibilita la adopción de medidas para el incremento retributivo de nuestros empleados públicos.

En concreto, el art. 3. Dos del referido Decreto - Ley dispone lo siguiente:

"Artículo 3. Dos.

En el año 2020, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 2,00 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2019, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo.

Los gastos de acción social, en términos globales, no podrán experimentar ningún incremento en 2020 respecto a los de 2019. A este respecto se considera que los gastos en concepto de acción social son beneficios, complementos o mejoras distintos a las contraprestaciones por el trabajo realizado cuya finalidad es satisfacer determinadas necesidades consecuencia de circunstancias personales del citado personal al servicio del sector público.”

Además se podrá autorizar un incremento adicional del 0,30 de la masa salarial para, entre otras medidas, la

efizientzia hobetzeko planak edo proiektuak ezarri, eginkizun parekagarriak dituten lanpostuen artean berariazko osagarriak berraztertu, lanpostu mailako osagarriak homologatu edo pentsio planetan ekarpenak egin.

Ildo horretan enpleguko pentsio planen edo kolektiboko seguruko kontratuen ekarpenak egin daitezke, aipatu den osoko igoera ez bada gainditzen.

Idazkari-kontuhartzailearen txostena ikusita.

Horregatik ,udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

ERABAKIA

1º.-Udal langileen ordainsariaren igoera orokor eta lineala hau egitea:
-2020ko urtarrilaren 1etik,%2,00.

2º.-Portzentaje berdinean igotzea udal hautagaien ordainsaria.”

implantación de planes o proyectos de mejora de la productividad o la eficiencia, la revisión de complementos específicos entre puestos con funciones equiparables, la homologación de complementos de destino o la aportación a planes de pensiones.

Además se podrán realizar aportaciones a planes de pensiones de empleo o contratos de seguros colectivos, siempre que no supere el incremento global fijado anteriormente.

Visto el informe del secretario-interventor.

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

ACUERDO

1º.- Aprobar un aumento general y lineal de las retribuciones del personal municipal del 2,00% desde el 1 de enero de 2020.

2º.- Aumentar en el mismo porcentaje las retribuciones de los cargos electos municipales con asignación.”

LAUGARREN GAIA 2020KO EKITALDIKO IRURAKO UDALEKO AURREONTUA OROKORRAREN ESPEDIENTEA ONARTZEA. HALA BADAGOKIO.

2020ko jarduera ekonomikorako Udalaren Aurrekontu Orokorraren proiektuaren berri eman da. Udalaren beraren aurrekontua da soilik; izan ere, Udalak ez dauka Erakunde Autonomorik, ez beste edozein erakunde edo enpresarik ere. Udaleko lehendakariak aurkeztu du proiektua, eta idazkari kontu-hartzaileak txostena egin du. Horrekin batera doa

Se da cuenta del Proyecto de Presupuesto General de este Ayuntamiento para el ejercicio económico de 2020. El presupuesto comprende solamente el del propio Ayuntamiento, al no haber Organismos Autónomos u otras Entidades o empresas municipales. El Proyecto es presentado por la Presidente de la Corporación y está informado por la

Aurrekontua Betearazteko Araua ere.

Aurrekontu Orokorra aurrekontu eta kontabilitate gaien inguruan indarrean dauden legeen arabera egin da, hala ezartzen baitu abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen aurrekontuei buruzkoak. Hasierako defizitik gabe osatu da eta Udaltzari aurkeztu zaio, onartu, itzuli edo zuzen dezan.

Gainera, kontuan hartzen da Aurrekontuen Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzko arauak ez direla betetzen aurrekontuaren egonkortasunaren arloan, idazkari kontu-hartzailearen txostenak dioen arabera.

Hala eta guztiz ere, plan ekonomiko-finantzario bat onartzeko betebeharra zehazte aldera, 2020ko aurrekontuaren likidazioaren bidez egiaztatuko da.

Halaber, Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari buruzko Informazio Batzordeak, 2020-01-27an egindako bileran, horri buruzko irizpena eman du.

Horren aurrean, haren edukiaren inguruan azalpenak eman eta eztabaidatu ondoren, Udaltzarak honakoa erabaki du, aldeko 5 botorekin (EH Bildu) eta aurkako 4 botorekin (EAJ/PNV):

ERABAKIA

Lehen.- 2020rako gastu ez-finantzarioaren muga onartzea: 2.289.264,00€. Edonola ere, gastuaren araua betetzen dela egiaztatu beharko da 2020ko aurrekontua likidatzean.

Secretaría-Intervención. Se adjunta también la Norma de ejecución presupuestaria.

El Presupuesto está formulado de acuerdo con la legislación en vigor en materia presupuestaria y contable y sobre todo, de acuerdo con la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Se ha formado sin déficit inicial y se presenta al Pleno de la Corporación, para su aprobación, devolución o modificación.

Además, se tiene en cuenta la legislación en materia de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera y con informe de la Secretaría-Intervención del que se deduce que no cumple la misma en el apartado de equilibrio presupuestario.

En todo caso y a efectos de determinar la obligación de aprobar un plan económico-financiero el cumplimiento se constatará con la liquidación del presupuesto de 2020.

Así mismo la Comisión Informativa de Cuentas, Hacienda y Administración, en sesión celebrada el 27-01-2020, ha dictaminado la misma.

Ante ello y dadas las aclaraciones oportunas sobre su contenido y previo debate, la Corporación acuerda por 5 votos a favor (EH Bildu) y 4 en contra (EAJ/PNV), lo siguiente:

ACUERDO:

Primero.- Aprobar para 2020 el límite de gasto no financiero 2.289.264,00€. En todo caso, El cumplimiento de la regla de gasto habrá de verificarse en la liquidación del presupuesto de 2020.

Bigarrena.- Irurako Udalaren 2020ko Aurrekontuari hasierako onarpena ematea. Udalaren beraren aurrekontua da soilik. Hona hemen gastuen eta sarrereren laburpena, kapituluka:

Segundo.- Aprobar inicialmente el Presupuesto de 2020 del Ayuntamiento de Irura. Está formado únicamente por el del propio Ayuntamiento y comprende el siguiente resumen por capítulos:

Sarrerei dagokionez:

KAPITULUAK	IZENA	EUROAK
1	Zuzeneko zergak	625.000,00
2	Zeharkako zergak	30.000,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	296.000,00
4	Transferentzia arruntak	1.407.000,00
5	Ondarezko sarrerak	5.000,00
6	Inbertsio errealak inorenganatzea	0,00
7	Kapital-transferentziak	42.000,00
8	Aktibo finantzarioak	1.000,00
9	Pasibo finantzarioak	500,00
SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA		2.406.500,00

Gastuak, bestalde:

KAPITULUAK	IZENDAPENA	EUROAK
1	Pertsonal-gastuak	903.500,00
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	642.900,00
3	Finantza-gastuak	1.500,00
4	Transferentzia arruntak	425.100,00
6	Inbertsio errealak	377.500,00
7	Kapital-transferentziak	55.000,00
8	Aktibo finantzarioak	500,00
9	Pasibo finantzarioak	500,00
GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA		2.406.500,00

Ez da Aurrekontu Orokorra deskribatu errepikapen hutsa delako.

No se describe el Presupuesto General por ser mera repetición del mismo.

Honela, 2018ko jarduera ekonomikorako Aurrekontua Betearazteko Udal-araua onartu da.

Herritarren Partaidetza partidaren (30.000 €) helburua udalbatzak onartuko du prozesua egin ondoren..

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, eta, horretarako, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean iragarkia jartzea hamabost egun baliouduneko epean, erreklamazioak egin ahal izateko.

Aurrekontua onartutzat joko du Udalak, aipatutako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Behin betiko onartutako aurrekontu orokorra Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, kapituluka.

Behin betiko onartutako aurrekontuaren kopia bat bidaliko dio Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari. Eta gero hark administrazio eskudunei bidaliko die.

Hirugarrena.- Aurrekontua dagokion ekitaldian jarriko da indarrean, aurreko atalean aurreikusitako eran argitaratu ondoren.

Gainera, aurrekontuaren eta haren aldaketen kopia bat eskura izango dute herritarrek, informazio nahikoarekin, behin betiko onartzen den unetik ekitaldia bukatu arte.

Así mismo se aprueba la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria del ejercicio económico de 2019.

El contenido de la la partida de Participación Ciudadana (30.000 €) se aprobará por el Pleno después del proceso.

Segundo.- El expediente se somete a información pública, mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, por el plazo de 15 días hábiles, para la presentación de reclamaciones.

Si no se presentan reclamaciones en dicho periodo, se considerará definitivamente aprobado.

El presupuesto general, definitivamente aprobado, se publicará por capítulos en el Boletín Oficial del Territorio Histórico.

Una copia del Presupuesto definitivamente aprobado, se remitirá a la Diputación Foral de Gipuzkoa, que será la encargada de enviarlo a las Administraciones competentes.

Tercero.- El presupuesto entrará en vigor en el ejercicio correspondiente, después de su publicación en la forma señalada anteriormente.

Además una copia del presupuesto y sus modificaciones, estará a disposición de la ciudadanía, para que tengan la suficiente información, desde su aprobación hasta el final del ejercicio.

Eztabaida:

Alkateak adierazi ditu joan den urteko aurrekontuarekin alde nabarmenak:

A) Sarreretan:

- Zuzeneko zergetan onartu diren aldaketak islatzen direla (45.000 €)
- Udal Finantza Foru Funtzaren kopurua asko hazi dela (1.346.000€)

B) Gastuetan:

-Bigarren atalean (Gastu Arruntak): trinketeko gimnasio zarata isolatzea eta zerbitzu berri hauek gauzatzea: app's gauzatzea herritarrekin komunikatzeko, kulturako agenda planifikatzeko ekimena, aholkularitza juridikoa eta ingurumen aholkularitza kontratatzea, datuak babesteko delegatua enpresa kontratatzea, artisau azokaren aurrekontua haztea, taberna emanaldiak ematea, berdintasun aholkularitza kontratatzea eta jaietan indarkeriaren aurka protokoloa egitea eta emakume taldea sortzea. Eta adin nagusien etxebizitzan suaren aurkako sistema instalatzea.

-Laugarren Atalean: Tolosaldeko Mankomunitari eta Tolosaldea Garatzen S.A.ri ekarpenak, Uema, Udalbiltzari ekarpena eta bere atzerapenak ordaintzea, herritarren zergak eta tasak ordaintzeko diru laguntza igotzea eta publizitate gehiago egitea, haur-eskola matrikulazioak ordaintzeko eta ikastetxetik ikasleen irteerak egiteko laguntzak onartzea. Euskara hedabideentzako diru laguntzak eta Tolosaldeko Komunikazio Taldeari laguntza igotzea.

-Inbertsio atalean: Peio Arrese Urbanizazioa egokitzapena (150.000 €), Kirol Anitzeko Gunea (100.000 €), Kale Nagusiko Trafiko azterketan parte hartzea prozesu batekin, Etxebizitzan alokatzeko azterketa, zer behar dauden, Irisgarritasun Plana berritzea, Parte hartzea Prozesuak: alde batetik udal etxe berritzeko proiektua eta San Migel plazako zahar etxe lokala erabilerari buruz eta herritarrek zer nahi dituen proiektuak gauzatzeko 30.000 € jarri dira.

Beste Aldetik aurrekontuaren proiektua Ogasun Batzordetik pasa zen eta EAJ/PNV-eko bozeramaileak eskatu zuen 15 egun bere alegazioak prestatzeko. Aurkeztu du eta lau eskaera egin dute: herriko dendetan gastatzeko bono txartelak ateratzea, Udal etxean bere udal talderako bulego propio izatea, informatiko tresnekin eta komuna publikoak jartzea ibai gainean eta hilero kantitate bat ordaintzea udal talde politikoentzat. Lehen hiru proiektuekin ados daude eta bultzatuko dira eta komuna proiektuarekin konpromiso publikoa hartzen dute Udalak dirua izango denean gauzatzeko. Leku aldetik beste herritar batzuk eskatu dute San Migel Plaza inguruan jartzea eta azkenean herritarrek erabakiko dute non jarri.

Ana Jesus Leunda (EAJ/PNV) hau adierazi du:

“Aurtengo aurrekontuak aztertzeke garaian, ikusi dugu aholkularitza, azterketa eta diru laguntza ugari daudela, adibidez:

- Ingurumen aholkularitza 10.000 €

Ez dugu esaten teknikari baten beharra dagoen edo ez, baizik eta non dagoen gardentasuna kontrato hau egiteko garaian.

Dei bat jaso nuen orain dela 20 egun, urtarrilak 9an, udal ofizinatik esanez teknikari bat egongo zela, guk oposizio bezala erabiltzen dugun gelan egun zehatz batzuetan. Horrelako modu xelebrea jakin genuen teknikari bat kontratatu zenuela.

Orain gaurko plenoko dokumentazioan, dekretu bat dago, konkretuki 273/19 dekretua, 2019ko abenduaren 3koa, non esleitzen da enpresa bati ingurumen udal eskumenak antolatzeke eta kudeatzeko aholkularitza. Hau al da EH Bildurentzat gardentasuna?

- Berdintasunari buruz: Aholkularitza 18.000 €
Lehenengo legegaldian, guk ere teknikari bat hartzeko bilera batzuk egin genituen Foru Aldundian eta T.Garetzenen, eta zuen kritikak jaso genituen Foru Aldundiko diru laguntzari uko egin genuelako, baina orain ikusten dugu berdin zabiltzatela, ildo berdina jarraitzen ari zaretela, diru laguntza nolako den ikusi duzuetenean, atzea joan eta uko egin duzute diru laguntzari. Dena den 18.000 € asko xamar iruditzen zaigu.
- Indarkeria matxistaren aurkako protokoloa badaukagu, Foru Aldundiak eginda, gehiago sakontzea ondo dago, hala ere, protokoloa edukita 5.000 € asko iruditzen zaigu.
- Aholkularitza juridikoa: 10.000 €
Idazkari kontu-hartzaile -jurista edukita, jakinda txosten juridikoak berak egiten dituela, ez zaigu iruditzen 10.000 € gastatu behar ditugunik honetan.
- Tolosaldea Garatzeneko kuotan %10eko igoera jasaten dugu aurten, %2ko igoera ondo ikusten dugu, beste %8a politiko baten liberazioa ordaintzeko ez dugu ondo ikusten, kontra gaude. Ez da egoera hori egon orain arte, beharrik ere ez dugu ikusten, gerente bat egonda eta sail bakoitzean bere teknikariak daudenean. Alde batetik soberan dagoen zerbait da, eta bestetik gure zalantzak dauzkagu kontratazio hori legala izatea. Argi utzi nahi dugu, kontra gaudela.
- Udalbatzari buruz, bi edo hiru aldiz entzun dugu zorra sortu dugula, ez ditugulako kuotak ordaindu. Eudel edukita, bertan kolore guztietako alderdiak daudela eta kontuan hartuta zerbait dugunean Eudelera joaten garela, bai zuek eta baita gu ere, bere protokoloak segitzen ditugula, denon artean adostuta daudelako, ba, ez dugu Udalbiltzan beharrik ikusten.
Gainera jakinarazi nahi dugu, gu sartu ginenean Udaletxean lehenengo legegaldian, beste zorra batekin topatu ginen, EH Bilduk Eudeleko kuotak ordaindu gabe zeuzkan, aurreko legealditakoak eta guk ordaindu genituen.
- Haur eskolako matrikulaziorako 4.000 €ko diru laguntza:
Udalak, Haurreskola Patzuergorekin adostuta jarri behar ditu gauz batzuk, lokala, tresna batzuk, eta abar... protokolo bat dago. Eusko Jaurlaritzak adostu zuen Patzuergoarekin 18.000 €ko errenta baxuagoko familiak ez dutela ordaindu behar kuotarik. Hemen ikusten ditugu bi gauza:
 - 1- 20-25-30 mila euroko errenta daukaten familiak ez daudela hain gaizki kuota ordaintzeko eta
 - 2- Haur eskolako matrikulak eta kuotak ez direla udalaren konpetentzia, beraz ez gaude ados neurri honekin.
- 4.000 €ko diru laguntza hezkuntza irteerako. Bai, ados gaude, oso triste da ume bat etxean gelditzea, gurasoak ezin dutelako irteera ordaindu, baina azpimarratu nahi dugu, diru laguntza hau, zailtasunak dauzkaten herriko

famili eta ume guztientzako dela, eta deialdia edo jakinarazpena ez bakarrik ikastolan bidez egitea, baizik eta herrian edo beste ikastetxera ere zabaltzea, herritik kanpo ikasten ari diren umeek ere badaudelako.

- Bestalde ikusten dugu, gimnasioan hobekuntzak egiteko asmoa dagoela, ba pozten gara, gure programa barrenean dagoen obra bat delako.
- Pozten gera ere, guk EAJ-PNVk sortutako diru laguntzekin segitzea.
 - Gazteentzako etxebizitza alokairua ordaintzen laguntzeko eta
 - Merkatari berriei lokal komertzialen alokairua ordaintzen laguntzeko.
- Sarreretan zerga bilketa igo egiten da, batzuekin, bere garaian esan genuen bezala ez gaude ados eta hemen ere jasota gelditzea nahi dugu.

- EAJ-PNVk egindako proposamenak, hauek izan dira:
 - Komun publikoa Ibai-Gain pasealekuan.
Iruratar guztien zerbitzuetarako komun publikoa, herritarren ongizatea eta bizi kalitatea hobetzeko asmoz egin dugun proposamena izan da, kontuan hartuta herritar batzuen eskaera dela eta herriko beheko partean zailtasunak daudela komon bat erabiltzeko, ez dagoelako ezer.
 - Herriko komertzioetan gastatzeko bono txartelak non herritarrak 40€ ordaindu eta 50€ gastatu ditzaten.
Atera genituen bonoak, herritarrak gastua herrian egin eta merkatariari laguntzeko asmoz.
Parte hartutako herritarrak gustura azaldu ziren eta dendariak ere bai.
Proposamena da aurten ere berriro bono kanpaña bat egitea.
 - Hilero kantitate bat ordaintzea udal talde politiko moduan.
Beste herritan egiten ari diren bezala.
 - Gela bat oposizio lanak egiteko, ordenagailu eta inprimagailuarekin.
4 zinegotzi gaude udaletxean herritarrekin eta herritarrentzat lanean.
Eskatzen dugu leku bat, edozein momentuan etortzeko lanera, eta ez etorri eta ezin izan sartu bilera bat dagoelako, gertatu zaigun bezala, orain gainera ingurumen teknikaria ere bertan dago egun batzuetan, mugatuta gaude, gela polibalente bat da, mikroondas eta guzti.
Ez dugu asko eskatzen, hainbat udaletxetan oposizioak daukana eta hemen bertan lehengo legealdian eduki duena.
Atzoko batzordean esan zenuen aztertuko duzuetela. Aztertu duzue zerbait?"

Ildo horretan eskertzen da baimena ematea komuna publikoa jartzeko eta dendentzako bonoak eta aukera izatea lokal bat erabiltzeko udal taldeentzako.

Alkateak hau erantzun du:

Ingumen aholkularitzan hiru aukera baloratu dira eta beste enpresa batzuen proposamenak emango dira EAJ/PNVko udal taldeari jakinarazteko. Berdintasunari buruz beste bide berria ireki da, Diputazioko diru laguntzaren ordez. Aholkularitza juridikoa eskatuko da aholkularitza arlo ekonomikoan eskatzen den bezala.

Udalbiltza kasuan bere alorra da Euskal Herri osoa, ez Eudel-en kasuan bezala. Ikastetxe irteerekin laguntza izango da ikastetxe guztietan dauen Irurako ikasleentzako dauden ikastetxe guztietan.

Ana Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) adierazi du bere udal taldeak aurka bozkatuko dutela.

Alkateak erantzun du hori islatzen duela zeinena izan da borondatea aurrekontuak onartzeko. EAJ/PNV-ek eskatu zuen hamabost egun aurrekontuaren proiektua aztertzeko, eta azken ogasun batzordean aurkeztu ziren bere proposamenak baina orain aipatu diren puntuak ez ziren aipatu. Eta hori gertatu da ez dutelako borondatea akordio bat lortzeko. Berak, alderantziz, lau puntutik hiru onartu dute. Bakoitzak hartzen du nahi duen posizioa eta berena izanda akordio baterako prest izatea eta bakoitzak jakingo du zerenentzat lan egiten duen eta EAJ/PNVek herritarrentzat ez. Hamabost egun izan dute lau proposamenak aurkezteko eta azken ogasun batzordean aurkeztu dira eta orain beste puntu gehiago aurkezten dira. Baina azken ogasun batzordean puntu berriei buruz ezta hitzik ere.

Ana Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) erantzun du bere iritzia izango dela.

Alkateak erantzun du ez dela bere iritzia, egia baizik. Hamabost egun eskatu zuten bere proposamenak aurkezteko, aurkeztu zuten eta atzoko ogasun batzordean eztabaidatu ziren eta orain hurrengo egunean hainbat puntu gehiago aurkeztu dituzte.

Noelia Lataburu zinegotziak (EH Bildu) adierazi du lau proposamenik hiru onartuta geratu dira eta hori izan arren EAJ/PNVek aurka bozkatuko dute. Inoiz ez dute izan borondaterik akordio batera iristeko, "paripe" bat baino ez da izan.

BOSGARREN GAIA

2020KO EKITALDIKO IRURAKO UDALEKO PERTSONALAREN PLANTILLA ETA LANPOSTUAREN ZERRENDA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Aurrekontuaren batera 2020ko Udaleko Plantilla Organikoa eta lan postuen zerrenda onartu behar da. Kontuan izanik 2019an Giza Baliobideak Arrazionaltzatzeko Programa onartu zela.

2019ko udal Plantillarekin alderatuta aldaketa bakarra proposatu da:

-Zerbitzuko Brigadan, beste ofizial plaza bat sortzea. Azken urteetan langile bat garbitzaile makina erabiltzen ari da eta bere izendapenak errepikatzen ari dira. Pentsatzen da lanpostu hori egiturazkoa bihurtu dela.

Ana Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) aipatu du txostenean beste iritzia bat agertzen dela, aparajadorearen lanpostuaren lanaldia luzatzea.

Alkateak erantzun du txosten hori idazkariak egin duela eta aparejadorekin hitz egin dutela eta berak eskatzen duela denbora aldekoa aztertzeko eta beste aldetik orain egiten dituen lan batzuk beste udal zerbitzuak egiten duela baina etorkizunera begira beraiek ere ikusten dute beharra dela lanaldia luzatzea.

Idazkari-kontuhartzailaren txostena ikusita.

Halaber Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari buruzko Batzorde Informatiboak, 2020-01-27an egindako bileran bere iritsia eman du.

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

Lehena.- 2020ko Irurako Udaleko Plantillari eta Lan Postuen Zerrendari hasierako onarpena ematea.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, eta, horretarako, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean iragarkia jartzea hamabost egun balioduneko epean, erreklamazioak egin ahal izateko.

Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

SEIGARREN GAIA

“LAN , PENTSIIO ETA BIZITZA DUINA URTARRILK 30, GREBA OROKORRA” EH BILDU AURKEZTUTAKO MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

EH-Bilduk aurkeztutako mozioa:

“ZIOA:

Duela sei urte, sindikatu eta eragile sozial ugari herritarren eskubide sozialak biltzen dituen Karta osatu zuten, prozesu parte hartzaile baten bidez. Geroztik, eskubide horien aldeko ekintzak antolatu ditu.

Bestetik, Hego Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak bi urte daramatza pentsio duinen alde astero mobilizatzen; bide horretan, pentsioen eremuaz gaindi, modu zabalagoan “planto” egiteko beharra plazaratu dute, euren aldarrietatik harago joateko asmoz.

Orain, aipatu planteamenduaren haritik, mugimendu bien arteko konfluentzia gertatu da, pentsiodunen eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren artekoa, alegia, lan baldintza, pentsio eta bizitza duinaren aldeko borrokari aurre egiteko.

Konbentzimendu hirukoitz batek batu ditu: batetik, pentsioak denon afera dela, oraingo pentsiodunena nahiz etorkizunekoena; bestetik, lan baldintza duinen aldeko borroka ezinbestekoa dela; azkenik, eskubide sozialak bermatu behar direla. Finean, bestelako

eredu sozial eta produktiboa eraiki behar dugu, bizitza erdigunean jartzeko, zaintzari eta planetaren jasagarritasunari lehentasuna emateko.

Ezarriak dituen ardatz nagusiekin bat egiten dugu, alegia: aberastasunaren birbanaketa, sektore publikoaren lidergoa, eskubideen unibertsaltasuna, euskararen normalizazioa lurraldeen arteko oreka zein jendartearen beharren arabera antolakuntza (lehen sektorea, azpiegiturak, merkantzien eta garraio sektorea...).

Horregatik, Euskal Herriko Karta Sozialak pentsiodunen mugimendurekin batera adostu duen Aldarrikapen Taularekin bat eginda, ondorengo ebazpen proposamena aurkezten dugu.

EBAZPEN PROPOSAMENA

Horiek horrela, Irurako Udalak:

1. Lan, pentsio eta bizitza duinaren aldeko grebari atxikimendua adierazi nahi dio.
2. Lan, pentsio eta bizitza duinaren aldeko greba egin ahal izateko erraztasunak eskainiko dizkie erakundeko langileei.
3. Euskal Herriko Karta Sozialak pentsiodunen mugimendurekin batera adostu duen Aldarrikapen Taularekin bat egiten du, eta horregatik:

1. Madrilen osatuko den Gobernuari eskatzen dio:

- * 2011 eta 2013ko erreformetan onetsitako pentsioen murrizketak indargabetzea.
- * Zapateroren eta Raxoiren lan erreformak bertan behera uztea.
- * Presazko izaeraz, Gizarte Segurantzaren eta Enplegurako Politika Pasiboen gaineko eskumenak transferitzea.

2. Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari eskatzen die:

- * 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzeko neurriak presazko izaeraz ezar ditzatela.
- * Hileko 1.200 euroko gutxieneko soldata ezartzeko neurriak abiarazi ditzatela.
- * Estatu mailako hitzarmenen gainetik, hitzarmen kolektiboen ultra aktibitate mugagabea eta herrialdeko hitzarmenen aplikazioa lehenesteko sustapen lana egin dezatela.
- * Lanera bizirik itzultzeko eskubidea bermatzea.
- * Lan Ikuskaritzako plantillak handitzea, Europako Batasunekin parekatu arte, eta lan istripuen eta laneko gaixotasunen aurkako ekintza planak abiatzea.
- * Lan harremanetarako eta babes sozialerako esparru propioaren aldeko neurriak abiaraztea.

3. Erkidego eta lurraldeetako gobernuei eskatzen die:

- * Gizon eta emakumeen arteko soldata arrakala eta pentsio arrakala amaitzeko neurri zehatzak aktibatu ditzatela.
- * Enplegu egonkorra sustatzea eta kontratazioetako iruzurra zigortzea.
- * Soldata gutxitu gabe lanaldia 35 ordura jaisteko neurriak abiaraztea.
- * Bereziki emakumeei ezartzen zaizkien lanaldi partzial inposatuak ezabatzea.
- * Zerbitzu publikoak garatzea, ezarritako murrizketak atzera botatzearekin batera.
- * Kontratazioan, sexuaren, jatorriaren, ideologiaren, sexu identitatearen, aniztasun funtzionalaren edo ekonomia jardueraren arabera diskriminaziorik egingo ez dela bermatzea.

* Klausula sozialak ezartzea administrazioko kontratazio guztietan.

4. Irurako Udalean adostutako ebazpen hau Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Euskal Herriko Karta Sozialari helaraziko zaie.”

Alkateak adierazi du Udal langileek erabaki dutela greba egitea eta berak ere greba egingo duela.

Hori ikusita bost(5) boto alde (EH Bildu) eta lau (4) aurka onartuta geratu dira.

Eztabaida:

Ana Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) hau adierazi du:

“Irurako EAJ-PNVko Udal taldeak, belaunaldien arteko elkartasun-berme eta bizi baldintza duinak dituen gizarte baten zutoin izango den pentsioen sistema publikoaren defentsan, Estatuko Gobernuari eskatzen dio:

- 1- Pentsio sistema publiko nahikoa eta iraunkorra bermatu dezala, oinarrituko dena pentsio duin batzuetarako eskubidean, elkartasunaren eta gardentasunaren esparruan, finantziario-iturri ziurrek eutsitakoa, modu horretan pentsio duin eta jasagarriak bermatzeko.
- 2- Indargabetu dezala 23/2013 legea, abenduaren 23koa, Gizarte Segurantzaren Pentsio Sistemaren Jasagarritasun Faktorea eta Errebalorizazio Indizea arautzen dituen. Helburua da pentsio duinak bermatzea, KPIari lotzea berrezarrituz, horiek eguneratzeko formula gisa.
- 3- Legez debekatzea Pentsioentzako Erreserba Funtzaren xedapen libre kotizazioen defizit-egoerentarako, PPren gobernuak ezabatutako %3ko muga berreskuratuz. Helburua da pentsioen sistema publikoaren iraunkortasuneko berme finantzarioarako tresna gisa erabiltzen jarraitu ahal izatea.
- 4- Finantziarioarako neurriak hartzea, bideratutakoak sistemaren diru-sarrerak areagotzera, arauz kontrako kontratazioaren eta kontratazio-iruzurraren aurkako borrokara, hala nola Estatuko Aurrekontu Orokorretatik etorritako diru-sarreren bidez kotizazioen finantziarioaren aldi aldiko defizitak betez.
- 5- Gizarte Segurantzako Sistemaren gastuetan jardutea, kenduz enpresek Gizarte Segurantzaren duten kotizazio-ko salbuespenak, hala nola erakunde administratiboaren kudeaketa-gastuak. Horretarako, Estatuko Aurrekontu Orokorren bidez zuzenean finantzatu ditzala Gizarte Segurantzaren administrazio-gastuak.
- 6- 2012ko lan erreforma indargabetu dezala. Helburua da enpleguaren kalitatean eta kotizazioen gutxitzean dituen ondorio negagarriak, arriskuak jartzen baitute pentsioen sistema publikoaren iraunkortasuna. 5/2013 EDLko borondatezko erretiroaren erregulazioa indargabetzea.
- 7- EAEko pertsona pentsiodunen egoera hobetzeko ezinbesteko baldintza denez, ekimenak abiatu ditzala EAera berehala eskualdatzeko Gizarte Segurantzaren alorreko eskumenak, tab etorrituz Gernikako Autonomia Estatua onartzen duen 3/1979 Lege Organikoko 18.2 artikuluan eta Bosgarren Xedapen iragankorrean

jasotakoarekin, bere izaera bateratuaren eta elkartasun printzipioaren errespetuaren baitan.”

Azkenean Ana Leunda zinegotziak gehitu du aurka bozkatuko dutela ez dutela ondo ikusten grebarena.

ZAZPIGARREN GAIA

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK.

Idazkari kontu-hartzaileak 2019ko 4º hiru hilabeteen ekitaldian ordaintzeko batez besteko epeari buruzko txostena jakinarazi du.

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

ZORTZIGARREN GAIA

GALDE -ERREGUAK.

Ez dago.

OHARRA: eztabaida osoa jasota dago “www.irura.eus” helbidean.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:45ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA